

**ERAKUNDEEN ARTEKO II. PROTOKOLOA
AZPEITIAN INDARKERIA MATXISTAREN
BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA
EMATEKO ETA KOORDINATZEKO:**

**Udalaren erabaki eta
jarduketa publikoei buruz**

2023

Azpeitia
Denontzat

AURKIBIDEA

1. ERANTZUN PUBLIKOAREN HELBURUAK	3
2. ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALA ANTOLATZEA:	4
KASUA EZAGUTZEN DA	4
3. ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOAREN ANTOLAKETA: KOORDINAZIO-MEKANISMOAK AKTIBATZEN DIRA	5
4. ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOAREN ANTOLAKETA: ERAKUNDEEN JARDUERAK ANTOLATU ETA BURUTZEN DIRA	7
1. AGERTOKIA	10
2. AGERTOKIA	11
5. ERAKUNDE ARTEKO ERANTZUNAREN JARRAIPPENA.....	13

UDALAREN ERABAKI ETA EKINTZA PUBLIKOEI BURUZ

Azpeitiko Udalak, udalerriko indarkeria matxistaren kasuak zigorrik gabe ez uzteko konpromisoan, indarkeria horren erabateko gaitzespenaren kultura eraikitzeke behar diren ekintzak egingo ditu, adierazten den edozein modu eta eremutan, eta, aldi berean, biktimei baldintzarik gabeko babesa ematen die, eta herritarrak dei egiten ditu babes horrekin bat egitera eta herrian gertatzen diren indarkeria-adierazpen guztiak baztertzeraz.

Udalak erantzun proportzionatua emango du, etengabeko gogoeta-lanaren emaitza gisa, ezagutzen dituen kasuen aurrean, biktimentzako **erreparazio-ekintza** gisa eratzeko helburuarekin. Beraz, beti egongo da harremanetan biktimarekin eta/edo haren ordezkari izan daitekeen bere inguruko pertsonarekin edo pertsonekin, eta errespetatu egingo du berak hartzen duen erabakia, erakundeen edo auzokoen gaitzespen-ekintza publikoei dagokienez.

1. ERANTZUN PUBLIKOAREN HELBURUAK

Hurbileko ingurune batean indarkeria-ekintza bat gertatzen denean, sinesgogortasun-dinamikak sortzen dira herritarren artean, litekeena baita protagonista ezagutzea edo nolabaiteko lotura izatea. Horrek ez die beti giro hobea sortzen emakumeei, beren erabakiz edo zirkunstantzien ondorioz, beren indarkeria-egoera publiko egiten denean, batzuetan, oihartzun handiagoa duen eraso batengatik. Zurrumurruak lehen erantzun bat dira, eta ez dira gutxi biktimaren kontakizuna eta/edo ustezko erasotzailatzat jotzen denaren erruduntasuna zalantzan jartzen diren aldiak; mugimendu feministak, bestalde, erantzun azkar eta sendoak eskatu ohi dizkie biktimari eragindako kaltea konpontzearen biktimarekiko ingurune solidarioa sortzen lagundu behar duten udaleko politikariei.

Hori guztia presio-ingurune batean egin ohi da, eta erantzun azkarra eskatzen du; horregatik, erakunde-proposamena egiteko **funtsezko alderdi** batzuk hartu behar dira kontuan.

Hona hemen herritarrekin bat egin nahi duen erantzun publiko instituzionalaren **helburu nagusiak**:

1. Biktimari eta haren inguruari **elkartasuna eta babesa** adieraztea.
Horrek eskatzen du biktimak behar duen arreta lehentasuna izatea, hau da, indarkeria-kasu bat ezagutzen denean, lehen urratsa biktimaren eta haren ingurunearen egoerari eta premiei erantzutea da, dauden beharrezko zerbitzuak

aktibatuz eta ad hoc laguntzekin erantzunez, egoera horri erantzuteko ibilbide argirik ez badago

2. Kontuan izan behar da erakundeen erantzun publikoa **erreparazio-neurri** bat dela.

Beraz, biktimaren borondatea errespetatuz egin behar da beti, emakumeek zer egin nahi duten eta nola egin nahi duten adierazteko aukera izan dezaten.

3. Indarkeria matxistaren **gaitzespen publikoa** egitea.

Illo horretan, herritarren erantzunak funtzio pedagogikoa bete behar du, herritarrak sensibilizatzeko eta indarkeria matxistaren aurrean kontzientziatzeko. Horretarako, indarkeria matxistaren egitura-izaera nabarmendu behar da udalerriek herritarrei helarazten dizkieten mezuetan, oinarrizko informazioa emanaz indarkeria mota bakoitzaren izaera eta ezaugarriak ulertzeko, eta, bestetik, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren esparruan betetzen duen funtzio soziala ulertzeko.

2. ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALA ANTOLATZEA: KASUA EZAGUTZEN DA

Udaleko kideren batek kasua bide fidagarritik ezagutzen duenean: biktimaren beraren bidez, bere ingurunearen bidez, bertaratu den erakunderen baten bidez, mugimendu feministaren bidez edo eraso espazio publikoan gertatu delako, informazioa baloratuko du eta, beharrezkoa bada, berretsi egingo du, batez ere komunikabideen edo sare sozialen bidez jasotzen bada.

Informazioa egiaztatu ondoren, protokoloa aktibatuko da **honako kasu hauetan**:

- Erasoa **udalerrian gertatu da**.
- Erasoa **udalerritik kanpo** gertatzen bada, baina emakumea edo erasotzailea bertakoak badira edo udalerriarekin lotura badute.
- Biktima defendatzeagatik edo laguntzeagatik **hirugarren pertsona bati** eraso egin badiote.
- EAEn **emakumeren bat edo haren seme-alabak** hil badituzte.

Kasu horietako bat betetzen bada edo zerrenda horretan jasota ez dagoen beste bat gertatzen bada, baina erantzun publiko instituzional bat emateko nahikoa larritzat jotzen bada, **lehenengo urratsak emango dira**:

1. Erantzunaren koordinazioan parte hartuko duen eragile bakoitzaren **rola eta funtzioak definitzea**.
2. Behar izanez gero, udalen eta erakundeen arteko koordinaziorako zehaztutako **mekanismoak abian jartzea**.
3. **Biktimarekin harremanetan jartzea** eta komunikatzea, **haren premiak zuzenean ezagutzeko** moduan. Edozein arrazoi dela-eta horrelakorik ezin bada gertatu, harreman hori ezarriko da haren ordezkari diren hurbileko pertsonekin.

Garrantzitsua da adieraztea inplikaturako eragileen arteko koordinazio-lanean biktimaren **intimitatea eta osotasun emozionala zaintzea** gailendu behar dela, agente bakoitzaren zeregina eta bere lana zehaztuz, inola ere gainditu gabe. Alde horretatik, inplikaturako pertsonak beren rola eta eginkizuna non amaitzen duten jakin behar dute, inplikaturako gainerako alderdien lana ez oztopatzeko.

Erasotzailea eta haren ingurune hurbila

Lehen fase honetako lehentasuna biktimarekin elkarrizketatzea da, baina horrek ez du esan nahi udalak ustezko erasotzaileari eta haren gertuko inguruari entzun ezin dionik. Hala ere, udalak argi izan behar du ezin duela epailearen rola bere gain hartu, ezta bere iritzi pertsonalenetan oinarritutako erabakirik hartu ere. Horregatik, kanpoko adituen ikuspegia izatea garrantzitsua izan daiteke nahasmendua eta zalantzak daudenean.

Kanpoko laguntza eta aholkularitza

Lehen uneetan hartzen diren erabakiak garrantzitsuak dira, horregatik ez da zalantzarik izan behar kanpoko laguntza edo aholkularitza eskatzerakoan. Erantzun publikoari buruzko edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoarekin.

3. ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOAREN ANTOLAKETA: KOORDINAZIO-MEKANISMOAK AKTIBATZEN DIRA

Koordinazio-mekanismoak abian jarriko dira kasua baloratu ondoren, biktimari eta haren inguruneari behar diren laguntzak abian jarri ondoren eta hark erantzun publiko instituzionala ematea garrantzitsua dela uste duenean. Komeni da koordinazio-egiturak

egitateak gertatu aurretik egotea, baina horrelakorik gertatu ez bada, koordinazio-mahaia ezar daiteke, eta bertan politikariek eta teknikariek parte hartuko dute.

Parte hartzen duten eragile guztientzat argi geratu behar du **erantzunaren erabakia biktimak duela**, eta politikariek erabakitzen dute erantzun instituzionala, biktimarekin eta haren inguruarekin koordinatuta. Mugimendu feministak edo erantzun horretarako koordinatzen diren beste gizarte-eragile batzuek bat egin dezakete erakundeen deialdiekin edo deialdi propioak egin ditzakete.

Gizarte-eragileen autonomia errespetatuz, ekintza koordinatuen bidez erantzun ahal izateko ahalegina egingo da, eta, ahal dela, antzeko moduan.

Garrantzitsua da koordinazio horretan beste alderdi batzuk kontuan hartzea:



4. ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOAREN ANTOLAKETA: ERAKUNDEEN JARDUERAK ANTOLATU ETA BURUTZEN DIRA

Erakundeen erantzun publikoaren eragina baloratu ondoren, adostutako jarduerak hezurmamituko dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

Erakundeen jardun publikoak modu koordinatuan planifikatzea, espero diren emaitzak lortzen direla ziurtatzeko.

Garrantzitsua da erantzun publikoan **mezu bat adostea**, indarkeriaren egitura-izaera eta funtzio soziala azpimarratuz.

Erantzun publikoko mezuak artikulatzerakoan, **kontuan izan behar da**:

- **Testuinguruan kokatzea:**

Gertakariez haratago, indarkeria matxista normalizatu den gizarte batean bizi garela azaldu behar da, eta hori onartezina da; horregatik, garrantzitsua da beti indarkeriaren egiturazko kausak eta emakumeen askatasuna eta osotasuna kontrolatzeko duen funtzio soziala nabarmentzea.

- **Erasoa adingabeen artean gertatu bada:**

Adingabearen interes gorenaren printzipioa errespetatuz, familiarekin edo legezko tutoreekin harremanetan jarri beharko da, eta erakundeen erantzun publikorik ez egitea edo informazio-ekintza bat egitea baloratuko da, haurren eta nerabeen babesa nabarmenduz, eta arreta biktimari eta haren inguruneari, familiari eta erreferentzia-taldeari arreta eskaintzeaz gain.¹

- **Kasua komunikabideetara eta sare sozialetara zabaltzeko bada:**

Instituzioen aldetik erantzuteko modurik onena baloratuko da, tartean dauden haurrak eta nerabeak beti babestuz. Bereziki azpimarratuko da gertakari horiek ez dutela zertan markatu beren bizitza, erresilientzia-gaitasuna nabarmenduz eta laguntzaren garrantzia azpimarratuz.

Bi erantzun publiko mota daude

1. Gertaera zehatz bati modu zehatzean **erantzutea**, biktimaren edo haren ingurukoen baimenarekin.

¹ Erasoren bat egin duten haur edo nerabeen kasuan, garrantzitsua da zigor-neurriak ezartzeaz gain, erantzun-ekintzak ingurunean sentibilizazio-lan pedagogikoa egitera bideratzea eta adingabeak izatea egindako kalteak konpontzeko neurriak abian jarriko dituztenak izatea, biktimari eta haren inguruneari zuzenduta.

2. Udalaren **ekintzak publiko egitea**, indarkeria matxistaren kasu guztiak salatzeko.

Erantzun mota horiek honako **ekintza hauekin** jar daitezke abian:


- Kasu baten berri zehatza izatean, erakundeek biktimei ematen dieten babesak adieraziz, egoeraren arabera egokienak diren bideen bidez. **Laguntza horrek ez du zerikusirik biktimak salaketa jartzearekin**; izan ere, salaketa jartzea emakume bakoitzak bere egoeraren arabera baloratzen du.
- Emakumeei, senideei eta gertuko beste pertsona batzuei **behar duten laguntza** bermatzea, udal-baliabideen bidez eta aktiba daitezkeen beste batzuen bidez
- Indarkeria matxistaren **kasu partikularren gaitzespena publiko eginez**, biktimen edo gertuko pertsonen baimenarekin, jarduteko moduarekin ados daudela ziurtatuz.
- **Erantzuna berehalakoa izango da**, baina horrek ez du esan nahi gertakarien berri izan eta egun berean edo hurrengo egunean eman behar denik. Zentzuzko denbora itxaron daiteke biktimek jarduketa horiek baloratu ahal izateko.
- Erantzun bat emateko heritarren eskaerak jasotzen badira eta biktimaren baimenik ez badago, **egoera aipatu ahal izango da ohar batean**, non adieraziko baita udal barrurako eta biktimari begira jarduten ari dela.
- **Ekitaldi publikoak** egun jakin batzuetan egingo dira: martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko egunean; azaroaren 25ean, eta ekainaren 28an.
- Urteko **kontu-emate bat** egingo da, eta kasu kopuruari, udalak emandako erantzunari, eskainitako zerbitzuei eta abarri buruzko datuak argitaratuko dira.

Ondoren, **erantzun publikoko agertoki** hauek proposatzen dira:

0. AGERTOKIA


Genero-indarkeriako kasuetan (emakumeak eta haien seme-alabak) eta sexu-erasoetan heriotza eragin duen erasoak

EMAKUNDEK ABIARAZITAKO PROTOKOLOA



1. AGERTOKIA


- Bikotekidea edo bikotekide ohia ez den gizon batek emakume bat erailtzea
- Bikotekideak, bikotekide ohiak, senideak, ezagun batek edo ezezagun batek emakume bat hiltzen saiatzea.
 - Genero-indarkeriaren biktima den emakume baten seme-alabak hiltzen saiatzea.
- Indarkeria sexistaren biktima baten heriotza, berehalakoa ez dena, alde zuzeneko erasoaren ondorioz.
- Indarkeria bikarioagatik pertsona bat hiltzea (hau da, biktima den emakume bati min egiteko)



2.AGERTOKIA. LEHEN AGERTOKIKO ERANTZUNAK KASU HAUETARA EGOKITU DAITEZKE.

- Emakumearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten erasoak lesio larriekin.
- Sexu-erasoa, sexu-abusua eta erasoak larriagotzen duten egoerak.
- Espazio publikoetan eragindako eta beste pertsona batzuek ikusitako erasoak.
- Beren ezaugarriak direla-eta, udalerrian alarma soziala eragin dezaketen erasoak.
- LGTBIQA+ kolektiboetako pertsonen egindako eraso oro.
- Indarkeria matxistako egoera guztietan, larria izan edo ez, ezaugarriak eta inpaktua baloratu ondoren, eskubideen urraketa berezizat hartzen dena eta aurreko puntuetan jasota ez dagoena

Garrantzitsua da erakundeen erantzun publikoaren eraginaren jarraipena egitea, ikasten jarraitzeko eta hobetzeko



5. ERAKUNDE ARTEKO ERANTZUNAREN JARRAIPENA

Ezarritako helburuak bete direla eta erakundeen erantzuna finkatutako irizpideen eta printzipioen araberakoa izan dela egiaztatu ahal izateko, ezinbestekoa da horien jarraipena egitea.

Erantzun publikoaren jarraipenak honako helburu hauek izango ditu:

- Biktimei eta haien familiei laguntzeko adostutako neurriak aurrera eraman direla egiaztatzea.
- Erasoaren hasierako inpaktua igaro ondoren sortu ahal izan diren beste premia batzuk aztertzea, eta nola bete diren edo nola erantzun behar den aztertzea.
- Kasu bakoitzean edo urtebetean gertatu diren kasuetan egin daitezken konponketa-neurriak baloratzea.
- Erabakitakoaren jarduna eta eraginkortasuna ebaluatzea, beharrezko aldaketak egiteko.

- Ikasgai honetako ikaskuntzak sistema bera aplikatzeko eta hobetzeko txertatzen direla ziurtatzea, bai eta ezagutza eta informazioa sortzen direla ere, horien baliozkotasuna dokumentatu eta ebaluatzeko.